

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK**

1

**DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

3/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 12koa, Udalak Finantzatzeko Foru Funtzساتگاتگ 2020an egin beharreko konturako ordainketak aldatzen dituen eta toki-erakundeentzako aurrekontu eta zerga arloko hainbat neurri ezartzen dituena.

Osasunaren Mundu Erakundeak, martxoaren 11n, nazioarteko pandemiatzat jo zuen Covid-19 gaitzak osasun publikoari eragindako larrialdi egoera. Handik egun batzuetara, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma egoera deklaratu zen estatu espainiar osoan, Covid-19 gaitzak sortutako osasun krisia kudeatzeko. Geroztik, bizitasun handiz larritu da egoera, bai Euskal Herrian, bai inguruko herrialdeetan, eta kalteuen kopurua ere asko hazi da. Hasieran osasun krisia izan zena, ekonomia eta gizarte mailako krisi ere bilakatu da. Ezohiko egoera horrek neurriak hartzea behartu ditu erakundeak ere, herritarren eta enpresen zailtasunak leuntzeko, eta bereziki pertsona zaurgarrien eskubideak babesteko.

Hala, krisiak jarduera ekonomikoari eragindako geldialdiak, batetik, eta larrialdiari aurre egiteko administrazio publikoek hartutako neurriek, bestetik, zerga-bilketaren erorketa gogorra ekarri dute atzetik. Gipuzkoan, apirilera arte, zerga-bilketa likidoaren erorketa % 25 ingurukoa izatea espero da, aurreko urteko epealdi berarekin konparatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen finantza eredia arrisku partekatuen printzipioan oinarritzen da. Hau da, Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen artean banatzen da zerga itunduek utzitako emaitza, bai gora egiten duenean, baita behera egiten duenean ere. Ohiko egoeran, aurrekontuko aurreikuspenen arabera bideratzen zaie urtean zehar Eusko Jaurlaritzari eta udalei zerga itunduetan duten behin-behineko partaidetza, eta behin betiko likidazioaren saldoa hurrengo urteko otsailean kitatzen da.

Covid-19 gaitzak eraginda, ordea, 2020an ezohiko egoera izango dugu, eta zerga-bilketa errealak ez du zerikusirik izango aurrekontuan jasotako aurreikuspenekin. Ondorioz, zuzentasunagatik, gomendagarria da berrikustea urtean zehar Eusko Jaurlaritzari eta udalei egingo zaizkien konturako ordainketak.

Hori hala izanda, erakunde arteko lantalde bat eratu da, Eusko Jaurlaritzako, foru aldundietako eta Eudel-eko ordezkariak osatua, Eusko Jaurlaritzari egin beharreko ekarpenen zenbatekoa eta egutegia berrikusteko xedea duena.

Era berean, komenigarria da Udalak Finantzatzeko Foru Funtzساتگاتگ (UFFF) udalek 2020an jasoko dituzten konturako ordainketak berrikustea, likidazioari itxaron gabe. Horri dagokionez, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa arautzeko azaroaren 23ko 15/1994 Foru Arauaren 6. artikulua xedatzen duenez, otsail, maiatz, abuztu eta azaroaren 20tik 25era bitartean, foru aldundiak hasieran aurreikusitako zenbatekoaren laurdena ordainduko die udalei UFFFaren konturako ordainketa gisara, liki-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

Decreto Foral-Norma 3/2020, de 12 de mayo, por el que se modifican las entregas a cuenta de 2020 por el Fondo Foral de Financiación Municipal y se establecen diversas medidas presupuestarias y tributarias para entidades locales.

La Organización Mundial de la Salud (OMS) declaró el 11 de marzo como pandemia internacional el estado de emergencia en salud pública provocado por el Covid-19. Más adelante, mediante Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, se declaró el estado de alarma en todo el estado español para la gestión de la crisis sanitaria generada por el Covid-19. Desde entonces, se ha producido un agravamiento de la situación, tanto en el País Vasco como en nuestro entorno, aumentando considerablemente el número de afectados. Lo que inicialmente fue una crisis sanitaria, también se ha convertido en una crisis económica y social. Esta situación excepcional también ha obligado a las instituciones a adoptar medidas extraordinarias para paliar las dificultades de la ciudadanía y de las empresas y, en particular, para proteger los derechos de las personas más vulnerables.

Así, el estancamiento de la actividad económica provocado por la crisis y las medidas adoptadas por las administraciones públicas para hacer frente a la emergencia han dado lugar a una fuerte caída de la recaudación tributaria. En Gipuzkoa, hasta abril, se espera que la caída de la recaudación líquida se sitúe en torno al 25 % respecto al mismo periodo del año anterior.

El modelo financiero vigente en la Comunidad Autónoma de Euskadi se basa en el principio de riesgo compartido. Es decir, el rendimiento de los tributos concertados se reparte entre el Gobierno Vasco, las diputaciones forales y los ayuntamientos, tanto cuando se producen ganancias como cuando se producen pérdidas. En situaciones ordinarias, la participación provisional en los tributos concertados se hace llegar a lo largo del año al Gobierno Vasco y a los ayuntamientos conforme a las previsiones presupuestarias, liquidándose el saldo definitivo en febrero del año siguiente.

Sin embargo, el Covid-19 nos lleva a una situación excepcional en 2020, en que la recaudación real no tendrá nada que ver con las previsiones presupuestarias. En consecuencia, por razones de prudencia, es recomendable revisar los pagos a cuenta que se realizarán a lo largo del año al Gobierno Vasco y a los ayuntamientos.

Siendo esto así, se ha constituido un grupo de trabajo inter-institucional, formado por representantes del Gobierno Vasco, de las diputaciones forales y Eudel, cuyo objeto es revisar la cuantía y el calendario de aportaciones al Gobierno Vasco.

De manera similar, es conveniente revisar las entregas a cuenta que percibirán los ayuntamientos en 2020 por el Fondo Foral de Financiación Municipal (FFFM), sin esperar a la liquidación. Al respecto, el artículo 6 de la Norma Foral 15/1994, de 23 de noviembre, reguladora del Fondo Foral de Financiación Municipal establece que entre los días 20 y 25 de los meses de febrero, mayo, agosto y noviembre, la diputación foral abonará a los ayuntamientos la cuarta parte del importe inicialmente

dazioari kalterik egin gabe. Arauketa horrek, ordea, ez ditu kontuan hartzen 2020ko alarma egoera eta zerga-bilketaren erorketa bortitza; eta ezohiko bi zirkunstantzia horiek arau aldaketa bat eskatzen dute, UFFFaren konturako ordainketak berrikusteko. Gainera, hurrengo ordainketaren epemuga maiatzaren 25ean denez, data horren aurretik jarri behar du indarrean aipatutako arau aldaketak.

Bestalde, Covid-19 gaitzaren ondorioei aurre egiteko neurriak indarrean azkar jartzeko, toki-erakundeek zailtasunak dituzte horrek kreditu gehigarriak onartzea eskatzen duen kasuetan. Izan ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34.3 artikulua araberako, udaleko Osoko Bilkuraren esku-mena da kreditu gehigarriak onartzea, eta aurrekontuaren onarpenari aplikatzen zaizkion erreklamazio eta publicitate arauak aplikatu behar zaizkio espedienteari. Beraz, komenigarria litza-teke prozedura arinago bat bideratzea, larrialdi egoerari aurre egiteko neurriak berehala indarrean jartzeko.

Era berean, komenigarria da aparteko laguntzak bideratzea osasun krisiak bereziki kaltetutako kolektiboentzat. Neurri horien artean daude toki-erakundeentzako tasetan ezarri daitezkeen hobariak, eta hori ahalbidetzeko aldatu beharra dago Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua.

Hemen proposatzen diren neurriak onartzekotan, ezin da erabili foru arauak onartzeko araugintza prozedura arruntaren bidea, haren epeak oso luzeak direlako. Horregatik, bidezkoz hartzen da neurriak foru dekretu-arau baten bidez onartzea.

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 14. artikuluan ezartzen duen araberako, behar larri eta apartekoek eraginda, Diputatuen Kontseiluak behin-behineko arau xedapenak eman ahal izango ditu, bere eskumen eskusiboen esparruan; xedapen bereziok foru dekretu-arauak izango dira eta ezingo diete eragin foru organoen antolaketa, araubideari eta funtzionamenduari.

Horrela hartzen diren xedapenak Batzar Nagusietan eztabaidatu eta bozkatu beharko dira berehala, baliozkotuz izateko.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. *Udalak Finantzatzeko Foru Funtzaren (UFFFaren) konturako ordainketak 2020an.*

1. UFFFaren konturako ordainketak egiteko, 2020ko ekitaldian, % 20ko murrizketa bat aplikatuko zaio Gipuzkoako Lurralde Historikokoaren 2020. urterako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 23ko 9/2019 Foru Arauaren 30. artikuluan aurreikusitako zenbatekoari, behin betiko likidazioari kalterik egin gabe.

2. Murrizketaren zenbatekoa hiru kuota berdinetan aplikatuko da maiatzeko, abuztuko eta azaroko konturako ordainketetan.

3. Hala ere, Gipuzkoako Finantzen Kontseiluak proposatuta, azaroko konturako ordainketen zenbatekoa berriz berrikusi ahal izango da, Eusko Jaurlaritzari egin beharreko ekarpenen aurrelikidazioan oinarrituta.

previsto, en concepto de entrega a cuenta del FFFM, sin perjuicio de la liquidación. Esta regulación, sin embargo, no tiene en cuenta el estado de alarma y la brusca caída de la recaudación, circunstancias excepcionales que se han producido en 2020, que requieren un cambio normativo para revisar las entregas a cuenta del FFFM. Además, habida cuenta de que el plazo de vencimiento del siguiente pago es el 25 de mayo, la citada modificación normativa debe entrar en vigor con anterioridad a dicha fecha.

Por otra parte, las entidades locales se encuentran con dificultades para implantar con la rapidez necesaria las medidas para combatir las consecuencias del Covid-19 en aquellos casos en los que ello requiera la aprobación de créditos adicionales. En efecto, según el artículo 34.3 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la aprobación de los créditos adicionales es competencia del Pleno, siendo de aplicación al expediente las normas de reclamación y publicidad que se aplican para la aprobación del presupuesto. Por lo tanto, sería conveniente un procedimiento más ágil para la entrada en vigor inmediata de las medidas para hacer frente a la situación de emergencia.

Del mismo modo, resulta aconsejable arbitrar medidas extraordinarias para los colectivos más afectados por la crisis sanitaria. Entre las citadas medidas está la posibilidad de establecer bonificaciones en las tasas de entidades locales, para lo cual resulta necesario modificar la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

La aprobación de las medidas que se proponen no puede conseguirse a través del procedimiento normativo ordinario de aprobación de normas forales, debido a lo dilatado de sus plazos. Es por ello que se considera procedente su aprobación mediante un decreto foral-norma.

Al respecto, el artículo 14 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, establece que, por razones de extraordinaria y urgente necesidad, el Consejo de Gobierno Foral podrá dictar disposiciones normativas provisionales, dentro del ámbito de sus competencias exclusivas, que tomarán la forma de decreto foral-norma, y que no podrán afectar a la organización, régimen y funcionamiento de los órganos forales.

Las disposiciones así adoptadas deberán ser inmediatamente sometidas a debate y votación en las Juntas Generales para su convalidación.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

Artículo 1. *Entregas a cuenta del Fondo Foral de Financiación Municipal (FFMM) de 2020.*

1. En el ejercicio 2020, las entregas a cuenta del FFFM se realizarán aplicando una reducción del 20 % sobre la cuantía prevista en el artículo 30 de la Norma Foral 9/2019, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2020, sin perjuicio de la liquidación definitiva.

2. El importe de la reducción se aplicará en tres cuotas iguales en las entregas a cuenta de los meses de mayo, agosto y noviembre.

3. No obstante, a propuesta del Consejo Territorial de Finanzas de Gipuzkoa, el importe de la entrega a cuenta de noviembre se podrá volver a revisar en base a la preliquidación de aportaciones al Gobierno Vasco.

2. artikulua. Kreditu gehigarriak onartzeko aparteko araubidea.

1. Toki-erakundeetan, Covid-19aren ondorioei aurre egiteko neurriei dagozkien kreditu gehigarrien espedienteak toki-korporazioko lehendakariaren dekretu edo ebazpen bidez izapidetuko dira, eta ez zaizkie aplikatuko Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan aipatzen diren aurrekontuen erreklamazioari eta publizitateari buruzko arauak.

2. Dekretu edo ebazpen horiek hurrengo Osoko Bilkuran baliozkotuko dira; horretarako, gehiengo soil baten aldeko botoa eskatuko da eta, ondoren, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

3. Osoko Bilkurak ez baliozkotzeak ez du onartutako dekretu edo ebazpenaren deuseztapen edo etete-ondoriorik izango.

3. artikulua. Hobariak tasetan.

1. 2020an, toki-erakundeek aparteko hobariak onartu ahal izango dituzte Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren II. tituluko III. kapituluko 3. atalaren arabera ezarritako udal-tasen zenbatekoaren gainean.

Hobari horiek Covid-19 gaitzaren osasun-krisiak eraginda-koak izan beharko dira, eta krisi horrek bereziki kaltetutako kolektiboek aplikatu ahal izango zaizkie.

2. Artikulu honetan aipatzen diren hobariak 2020ko urtarilaren 1era arteko atzeraeragina izan ahalko dute.

Azken xedapenetako lehena. Arauak emateko ahalmena.

Ahalmena ematen zaio Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari foru dekretu-arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bereziki, ahalmena ematen zaio Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari UFFFaren azaroko konturako ordaintzen berrikuspena onartzeko, 1.3 artikuluan aipatzen denaren arabera.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu-arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2020ko maiatzaren 12a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Markel Olano Arrese.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Jabier Larrañaga Garmendia.

(2129)

Artículo 2. Régimen extraordinario de aprobación de créditos adicionales.

1. En las entidades locales, los expedientes de créditos adicionales correspondientes a las medidas para hacer frente a los efectos del Covid-19 se tramitarán por decreto o resolución del presidente o presidenta de la corporación local, sin que les sean de aplicación las normas sobre reclamación y publicidad de los presupuestos a que se refiere el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, presupuestaria de las entidades locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. Tales decretos o resoluciones serán objeto de convalidación en el primer Pleno posterior que se celebre, exigiéndose para ello el voto favorable de una mayoría simple y la posterior publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

3. La falta de convalidación plenaria no tendrá efectos anulatorios ni suspensivos del decreto o resolución aprobada.

Artículo 3. Bonificaciones de tasas.

1. Durante 2020, las entidades locales podrán aprobar bonificaciones extraordinarias sobre la cuantía de las tasas municipales establecidas en virtud de la sección 3.ª del capítulo III del título II de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

Estas bonificaciones deberán estar motivadas por la crisis sanitaria del Covid-19 y podrán aplicarse a colectivos especialmente afectados por la misma.

2. Los efectos de las bonificaciones a que se refiere el presente artículo podrán retrotraerse hasta el 1 de enero de 2020.

Disposición final primera. Habilitación normativa.

Se faculta al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias en desarrollo y aplicación del presente decreto foral-norma.

En particular, se faculta al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para aprobar la revisión del importe de las entregas a cuenta del FFFM de noviembre a que hace referencia el artículo 1.3.

Disposición final segunda. Entrada en vigor.

El presente decreto foral-norma entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 12 de mayo de 2020.

EL DIPUTADO GENERAL,
Markel Olano Arrese.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
HACIENDA Y FINANZAS,
Jabier Larrañaga Garmendia.

(2129)